

noaua



**Igandera bitarte,
Garagardo Azoka
Usurbilgo frontoian**



**“Albiste bikaina da,
Danfossek bere jarduera
industrialerako Usurbil aukeratzea”**

G Auto Guria s.l



Auto Konponketa
Pre I.T.V.
Marka guztiak

KONFIDANTZAZKO TAILERRA!

☎ 943 363 298 Zelai-haundi 11, Osinalde Pol. USURBIL

noaúa

jarraitu gure sare sozialak








www.noaúa.eus

Ordutegi gehiago eskuratu nahi badituzu,
hemen aurkituko dituzu:

* NOAUA! * UDALETXEA

Edo deskargatu ezazu www.noaúa.eus-etik
edo QR kodea eskaneatu zure mugikorrarekin!

tren eta autobus



noaúa

ordutegia 22/23

Albisteak iruditan

“Ez dugu etxegabetze hau onartuko”

Maria Angeles herrikidea etxegabetu nahi dutela salatu du Gipuzkoako Kaleratzeak Stop plataformak eragile gehiagoren babesarekin batera, astearte honetan Donostian salatu duenez. Usurbilgo 80 urteko emakumeak bizilekua duen etxea ordaindua izan arren, seme baten mailegua abalatzeko erabilitakoa, orain kaleratu egin nahi dute.

“Ez dugu etxegabetze hau onartuko”, adierazi zuten, Bulebarrean egindako agerraldian bildutakoek. Bertan zen Maria Angeles. “Egoitza Madrilen duen Reno Amusement SL mailegu-emaileak 60.000 euroko hipoteka-mailegua formalizatu zuen hildako semearekin, Maria Angelesen ordaindutako etxebizitzaren bermearekin eta epemuga aurreratuaren abusuzko klausularekin, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak baliogabetzat jo zuena. Horregatik, ordaindu gabeko hirugarren kuotaren ondoren, mailegu-emaileak hipoteka exekutatzeak demanda bat



Etxebizitza eskubidea dela, ez negozioa, hori salatu zuten astearteko elkarretaratzean.

aurkeztu zuen, Maria Angelesekin horren berririk izan gabe”.

Egoera honen aurrean, “ez dugu etxegabetze hau onartuko, helburua Maria Angeles bere etxean bizitzen jarraitzea da bere egunak amaitu arte”. Etxebizitza eskubidea dela, ez negozioa salatzen zuen

elkarretaratzean parte hartu eta herriki-deari babesa eta laguntza eskaintzen izan ziren Usurbilgo alkate Agurtzane Solabe-rrieta Mesa, eta berarekin ziren EHBildu eta Elkarrekin Podemos alderdietako batzarkideak ere. Baita sindikatu eta pentsiodunen mugimenduko kideak ere.

Laburrean

Larunbat honetan batuko dira 1955ean jaiotakoak

1955eko kintoek egunpasa egingo dute larunbat honetan Oñatin. Artzain Eskola (Arantzazun) eta Unibertsitatea bisitatuko dituzte. Ondoren, bazkaria Soraluze jatetxean izango da. Izena emateko 675 006 445 (Maribi) telefono zenbakira deitu.

1952an jaiotakoek bazkaria, urriaren 22an

Lukainategi jatetxean ospatuko dute urriaren 22an, 1952an jaiotakoek topaketa, bazkari eder baten bueltan. Larunbat honetan (urriak 15) amaituko da izena emateko epea. Apuntatzeko deitu 620 516 715 telefono zenbakira (Javier).

Urriaren 25ean, literatura topaketa Sutegin

Ana Merino herrikideak zuzenduriko solasaldia iragarri du Sutegi udal liburutegiak urriaren 25ean. “Los extraños” liburua aztertuko dute. Hitzordura egilea, Jon Bilbao idazlea gonbidatuko dute. Solasaldi honi begira, liburuaren aleak eskuragarri dituzue udal liburutegian.

noaqua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaqua.eus /// www.noaqua.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatorak:
Imanol Ubeka.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeka, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaqua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaqua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia





Ainhoa Azpirotz

Ez omen da kontu edo notizi berria, baina hiru asteko tartean bi mahai-bueltatan atera da gaia: Bilbon 12 urtetik behera errondatutako umeak erroldatutako txakurrak baino gutxiago omen dira. Alegia, 12 urtez azpiko umeak baino txakur gehiago daudela Bizkaiko hiriburuan.

Mahaikideen aurpegietan harridura eta sorpresa islatu ziren, aurpegi arraroak barne. Bazkaltiarren artean bat pentsakor geratu zen eta segundo batzuen ondoren notizia sinesten zuela esan zuen; haren etxebizitzan, lehenengo pisutik laugarrenerraino umerik ez dela bizi zioen, eta aldiz, txakurrak baietz, hiru bizilagunek dituztela txakurrak. Beraz, etxebizitza horretan Bilbon gertatzen dena pasatzen dela, gutxi gorabehera.

Iruñean bizi den beste bazkaltiar batek haien auzoan pasatzen dena kontatu zuen. 35-40 urte arteko bikoteak bizi omen dira auzoan eta bi taldetan elkartzen omen dira: umeak dituztenak eta txakurrak dituztenak; haurrak dituztenak parke inguruan eta txakurrak dituztenak belardi jiran. Beraz, bikote batzuk haurrak izatea erabakitzen dute eta beste batzuk txaku-

Txakur bat erosi dut, uau, uau, uau, merke azokan



“Txakur-kotxeak badaude, eta ez Interneten edo pelikula amerikarretan soilik, baita Donostiako kaleetan ere”.

AINHOA AZPIROTZ

“12 urtez azpiko umeak baino txakur gehiago daude Bilbon”

rrak.

Horixe zen hirugarren bati kezka sortzen zion puntua, hain zuzen ere: umeak edukitzea baino nahiago izatea txakurrak edukitzea. “Zergatik ote?” galdetzen zuen 70 urtetik gorako psikologoa den mahaikideak. “Zerk bultzatzen ote ditu erabaki hori hartzera? Gehiegizko erantzukizuna ote? Edo gehiegizko konpromisoaren beldurra? Edo lotura?”. Erantzunik gabe geratu ziren sakontasunera bultzatzen zuten galderak.

Beste mahaikide batek bere etxe azpiko kafetegian ume buila baino txakur zaunka gehiago entzuten duela esan zuen. Eta

umeei bezala aritzen direla “zatoz hona”, “isil zaitez” esanez. Donostiakoa den beste mahaikide batek txakurrei hitz egiteko modua aipatu zuen, Donostian bertan entzuna omen dauka txakurrari “egin kasu amari” esaten; ama, noski, txakurraren jabea zen, hitz horiek esaten zituena. Hori Donostian entzundakoa, eta ikusitakoa honako hau: txakurrak txakur-kotxeetan paseatzen, haurrak haur-kotxeetan paseatzen diren bezala. Txakur-kotxeak badaude beraz, eta ez Interneten edo pelikula amerikarretan soilik, baita Donostiako kaleetan ere. Haurrenak baino txikiagoak omen dira eta gainean saretxo bat omen zeukan berak ikusitakoak. Beste bazkaltiar batek orgatxoan ez, txakurra motxilatxoan zerraman pertsona bat ikusi omen zuen Gasteizen.

Txakurrentzako hotelak aipatu zituen beste batek. Haien bizilagunak, oporretara joaten direnean txakurra txakur-hotel batean uzten omen dute, eta oso ondo zaintzen omen dute. Ez zekien txakur-hotela bost izarretakoa zen edo ez, baina bizilagunak egondako hotela bikoa omen zen. Agian txakurra bazkaltiarren bizilagunak baino hobeto egongo zen...

Beste mahaikide batek txakurren janaria eta pertsonen janaria ekarri zituen hizpidera. Ezagutzen omen du txakurrari gure jakiak ematen dizkion pertsona bat: urdaiazpiko ona -garestia, alegia-, pattea, kroketak, gailetak...

Barrez bukatu genituen bi bazkariak. Postre garairako irudimenak beste hamaika karikatura egitera eraman gintuen: txakur koadrila bat jacuzzian, txakur bat mugikorarekin, txakur bat aterkiarekin... Gure txikitako kantak etorkizuna iragarri zuen: *Txakur bat erosi dut, uau, uau, uau, merke azokan, zikina zegoela, zikina zegoela, eta sartu dut baineran.*

Barreak barre eta kasuak kasu, zer pentsatu ematen du. Nola bukatuko ote dugu, txakurrak hizketan ikasita ala pertsonak zaunkaka?

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Luis Aranalde

Ugaitz Agirre Zapirain

Irailaren 29ko plenoan hartutako hainbat neurri

Herriarrek Parte Hartzeko Programa

Hiria Antolatzeko Plan Orokorren (HAPO) baitan, “Herriarrek Parte Hartzeko Programa Berrikusia” hasieraz onartzea erabaki zuen udalbatzak gehien-go osoz, irailaren 29ko osoko bilkuran, EHBildu eta PSE-ren aldeko bozkekin. EAJ abstenitu

zen. Programa hau behin betiko onartu aurreko tarte honetan, gizarteratu asmo dutela berri eman zuten EHBildutik.

Aldaketa Txirikordaren exekuzio obra kontratuan

Ugartondoko urbanizazio berrian eraikitzen ari diren belau-naldi arteko etxebizitza komu-

nitarioari lotutako “exekuzio obra kontratua” aldatzea aho batez onartu zuten irailaren 29ko udalbatzarrean, “obra gehigarriak eta funtsezkoak ez diren aldaketak txertatzeko”. Dirutan, “aldaketaren kopurua 29.739,41 eurokoa da, hau da, esleipen prezioarekiko aldaketa %1,52koa da”. Ondorioz erai-

kitze lanez arduratzen ari den Construcciones Murias S.A. enpresak “kontratuaren bermea 1.486,97 eurotan handitu behar duela zehaztea, eta horretarako erabaki honen jakinarazpe-na jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 15 egun balioduneko epea ematea” erabaki dute.

Urriaren 31n, Gau Beltza Kalezarren

Urriaren 31 ilunabarrean ospatuko dute Gau Beltza Kalezarren eta auzotarrek deia luzatu die herriko haur eta gaztetxoiei beldurrei aurre egiten ikas dezaten. Eskribaenea etxearen aurretik abiatuko dira arratsaldeko 19:00ak aldera. Parte hartu nahi duten gaztetxoek begiak estaltzeko moduko zapi bat eraman beharko dute etxetik eta trapu zaharrekin jantzita azaldu beharko dute kalezartarrek proposatutako ibilbidea egiteko.

“Gure arbasoek ehunka urteetan egin izan duten bezala, gau hotz eta ilunek gure barnean sortzen dituzten beldur eta mehatxuei aurre egiten ikasiko dugu Gau Beltzean”, adierazi dute herritarrek. Helburua plazan jarriko duten txorimalo erraldoia beldurrari aurre egiteko tresnekin hornitzea.

‘Hezur lapur’ pertsonaia

Jolasak egingo dituzte ibilbide bat jarraituta txorimaloa janzteko. Pertsonaia berri bat ere asmatu du herritar batek, ‘Hezur lapur’.

Zintzarriak auzoan barrena

Euskal mitologia sinboloz beteta dago eta horietako batzuk



“Parte hartu nahi duten gaztetxoek begiak estaltzeko moduko zapi bat eraman beharko dute etxetik eta trapu zaharrekin jantzita azaldu beharko dute”.

ANTOLATZAILEAK

“Gure arbasoek ehunka urteetan egin izan duten bezala, gau hotz eta ilunek gure barnean sortzen dituzten beldur eta mehatxuei aurre egiten ikasiko dugu Gau Beltzean”

berreskuratuko dituzte. Zintzarriak ezjakintasunak sortzen duen beldurra uxatzen du, eta beraz, auzoko hainbat txokotatik aurkitu egin beharko dituzte tolon-tolon soinuen bidez ezjakintasuna uxatzeko.

Eguzki-lorearen babesa

Eguzki-loreak, berriz, iluntasunak sortzen duen beldurrari

aurre egiten laguntzen du. Hezur lapur ezagutuko dute orduan. Eguzki-lorearen babesa beharrezkoa izango da Hezur lapur uxatzeko, hura ilun eta itzalaren laguna baita, eta ondorioz, eguzkiaren etsaia. Eguzki-lorea aurkitu beharko dute Hezur lapurri ihes egingo badie.

Esaerak eta maldizioak

Tresnez gain, sorginkerari oso lotuta egon dira beti esaerak eta araoak (maldizioak). Horregatik, Kalezarren ere zenbait beldurri aurre egiteko araoak erabili beharko dituzte haurrek aurrera egin nahi badute. Musika eta joko tradizionalak ere izango dute tartea auzoan. Azkenean, txorimaloa hornitzea lortuko ote dute?

‘650 Usurbil bizi’ egitasmoaren aurkezpena

Turismo eredu berriaren webgunearen eta abian jarritako ‘650 Usurbil bizi, Beste mundu bat posible da’ proiektua aurkeztuko dute jendaurrean Usurbilgo Udalak, lanketa hau bideratu duen Jon Maia Soriak eta hainbat herri eragileetako ordezkariak. Ostiral honetan izango da, urriaren 14an, arratsaldeko 18:00etan Mikel Laboa plazan.

Euskararen kale-erabilera neurketaren emaitzen aurkezpena

2021ean egindako euskararen kale-erabilera neurketaren emaitzak aurkeztuko ditu Soziolinguistika Klusterrak, urriaren 18rako 18:00etan Potxoenean iragarri duen ekitaldian. “Azterketa horrek hitanoaren hedapena ere izan du ikergai. Herritarren hizkuntza ohituren diagnostikoak Euskaraldirako gakoak ematea da saioaren helburuetako bat”.

Ika-mika

Alkoholismoak lehentasuna kirolaren aurrean

Usurbildarrak eta Eskola Kirola (esku-pilota) egiteagatik ordaintzen duten gurasoena izan zitekeen idatzi hau baina kasu honetan esku-pilota elkartearena da.

Udaleko arduradunek zeri ematen dioten lehentasuna garbi dago. Herriko frontoian entrenamentuak eta partidak noiz ditugun abisatzeko eskatzen digute, baina abisatu edo ez, askotan ekitaldi ezberdinak

antolatzen dituzte pilotako partidarik dagoen jakin gabe. Baldin badago ere, pilotako partidak lehentasunik ez du izaten.

Udal arduradunek antolatzen dute Eskola Kirolaren sistema (ikasturtea noiz hasi, noiz bukatu...) eta hala ere noiznahi frontoitik baztertuak izaten dira pilotariak (100 haurretik gora federatuak).

Herrian arrazoi/helburu ez-

berdinak dituzten ekitaldiak onartu eta burutzen dira, pilota jaialdien aurretik. Pilotariak (famiak, aurkariak, elkar-tea...) gutxietsi eta moldatu daitezela.

Aste honetako entrenamenduak ezin dira frontoian egin ezta hiru partida jokatu ere, ostegunetik igandera ekitaldi batek lehentasuna duelako. Urriaren azken astean ere kontzertu batek lehentasuna

duenez ezingo dira pilota partidak jokatu herrian.

Udal agintariak aspaldiko urteetan Usurbilgo esku-pilota elkartearenganako duten jarra garbi utzi nahi dugu.

Usurbilgo esku-pilotak indartsu izaten jarraitu dezan elkar-tea prest egon da beti edozertarako, baina erreztasunak ordez oztupoak jartzen dizkigute.

Pagazpe P.K.E.

Iñigo Urkullu lehendakaria Danfoss lantegi berriaren inaugurazioan izan zen

Danfoss Power Solutions Telecontrol S.L.U. enpresaren lantegi berria inauguratu zuten astelehen eguerdian. Atallu industrialdean aurkitzen da eta irrati-kontrolako sistemak diseinatu eta fabrikatzen ditu. Daniarrak dira jabeak eta 2018an iritsi ziren Euskal Herrira lehen aldiz. Miramonen egoitza bat zabaldu zuten urte hartan eta oraintsu lantegi bat jarri dute martxan Usurbilen.

Danfoss enpresako nagusi daniarrak inaugurazio ekitaldian hurbildu ziren. Eta aldamean izan zituzten Iñigo Urkullu lehendakaria, Arantxa Tapia Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua, Markel Olano Gipuzkoako ahaldu nagusia eta Agurtzane Solaberrieta alkatea.



Danfoss Atallu industrialdean dago. Inaugurazio ekitaldia hasi aurretik argazki bat atera zuten egoitzaren atari nagusian. Ezkerretara instituzioetako ordezkariak, eskubitara Danfoss lantegiko nagusi daniarrak.

Agurtzane Solaberrieta: “Albiste bikaina da”

Agurtzane Solaberrietaren esanetan, “albiste bikaina da, Danfossek bere jarduera industrierako Usurbil aukeratzea”.

Usurbilgo garapen ekonomikoa sustatu, “ehun industrialak osatzen jarraitu eta lanpostuak sortzeko ezinbestekoak ditugu gisa honetako jarduerak herrian instalatzea, are,

egoera ekonomiko ezegonkor honetan. Bidelagun izaten jarraituko dugu. Ongi-etorri Usurbilera!”, zioen alkateak sare sozialen bidez zabaldu-tako mezuan.

Iñigo Urkullu: “Industria-ekoizpena eta manufaktura indartzen jarraituko dugu”

“Egun on eta eskerrik asko zuen gonbidapenarengatik”. Lehendakaria hitz hauekin zuzendu zitzaizen inaugurazio ekitaldian bertaratu ziren guztiei. “Zorionak egoitza berri hau martxan jartzeagatik eta urte askotarako, esaten den bezala. Danimarkatik etorri diren arduradunei ere gure ongi etorria Euskadi Basque Country-ra. Asmorik eta one-nak Jorgen Clausen jaunari eta bere familiari”.

Danfoss 35 urteko ibilbidea duen nazioarteko enpresa da. Iñigo Urkullu lehendakariaren esanetan, Usurbilen egin duen “inbertsio honek erakusten du Euskadiren ekosistema industrialean konfiantza da-



Danfoss Atalluko industrialdean zabaldu duen lantegian irrati-kontrolako sistemak diseinatzen eta ekoizten dituzte.

goela”. Halaber, erakundeen eta enpresen arteko harremana sendotzearen alde azaldu zen. “Horixe da gure eredia etengabeko hobekuntzaren alde”.

Lehendakariak adierazi zue-

nez, Danfoss Power Solutions Telecontrol etxea iraunkortasunarekin eta deskarbonizazioarekin konprometitutako konpainia bat da, “inbertitzen duena eta berrikuntzaren zein

garapenaren aldeko apustua egiten duena”. Danfossen helburuak eta konpromisoak, halaber, lehiakortasuna irabaztera eta kalitatezko enplegu-aukerak sortzera bideratuta dagoen euskal estrategia ekonomikoaren parte direla adierazi zuen.

Lehendakariak azpimarratu zuenez, “industria da euskal ekonomiaren motorra (balio erantsi gordina-ren %25 baino gehiago da), manufakturarekin, energia-rekin eta osasunarekin batera. Egiten duen herrialdea gara eta Euskadin industria-ekoizpena eta manufaktura indartzen jarraituko dugu”.

“Uste dut erregular aritu naizela baina lehertu gabe”

Asier Azpiroz Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalaurrekoetan izango da. “Nahiko lasai egon naiz”. Urriaren 9an, Lizarrako bertso-saioa bukatu eta gutxira egin zituen adierazpeneetan pozik ageri zen Zubietako bertsolaria. Eskaini zuen bertsoaldiarekin ordea, ez zegoen hain gustura: “nire buruaren kontrola banuela ikusten nuen, nahiz eta bertso askotan ez asmatu”.

Barrutik beste modu batean ikusten dira gauzak. Honakoan baina, epaileen zein protagonistaren aldarteak bat datoz. Epaileen puntuazioari begiratuta, maila beretsuan egin zituen lan denak. Protagonistak ere, kasu honetan Asier Azpiroz zubietarrak, antzeko irakurketa egin zuen Lizarrako bertso-saioa amaitu berritan. “Iruditzen zait saio erregular samarra egin dudala baina ez dut lehertu. Nahi nuen, hurrengoan altxa eta lehertu behar dek esaten nion nire buruari, baina gero antzeko sentsazioarekin itzultzen nintzen nire tokira. Beti zen, gaizki ez baina ondo ere ez”.

“Plaza oso polita zegoen”

Lizarrako saiorako sarrera denak agortu ziren. Asier Azpirozen esanetan “plaza oso polita zegoen eta nahiko gustura nago ez dudalako batere sufritu ohol-tzan”.

Bakarkako saioetan ere berdintsu aritu zela azaldu zuen Asier Azpirozek bertsoa.eus



Aurreko igandean Lizarrako bertso-saioan eginiko lanari esker eskuratu du finalaurrekoetan aritzeko txartela. Asier Azpirozen hurrengo erronka: urriaren 29an, Donibane-Garazin. Argazkia: Alberto Elozegi, Xenpelar D. Z.

ASIER AZPIROZ IZTUETA

“Gozatzen segi nahi dut bertso-eskolan, eta baita urriaren 29ko finalaurrekoan ere”

hedabideari eginiko adierazpenean. “Banekien bakarkako on bat egin behar nuela hurrengo fasera pasa ahal izateko. Bakarkakoan ere ez naiz disgustura aritu, baina gustura ere ez”.

“Sari handia da niretzat”

Kontuak kontu, finalaurrekoetarako txartela eskuratu du. “Niretzako sari oso handia da finalaurrekoetara sailkatzea eta

hemendik aurrera opari bat bezala hartuko dut”.

Lizarran eskuratutako txartelari esker, urriaren 29an Donibane-Garazin egingo den bertso-saioan izango da. Bien bitartean, “gozatzen segi nahi dut bertso-eskolan eta baita (urriaren 29ko) finalaurrekoan ere”.

Lizarrako sailkapena

Aitor Bizkarrak lortu zuen puntu gehien pilatzea, 693,5 puntu guztira. Jarraian geratu ziren Asier Azpiroz (666 puntu), Maialen Akizu (658,5), Imanol Uribe (652 puntu), Unai Gaztelumendi (630,5) eta Iñigo Mantzizidor ‘Mantxi’ (622,5).

Aitor Bizkarrak zuzenean

lortu zuen finalaurrekoetarako txartela eta Durangoko finalaurrekoan kantatuko du azaroaren 12an.

Urriaren 29an larunbata, Donibane-Garazin

Asier Azpirozek ere aurrera egin du txapelketan eta urriaren 29an Donibane-Garazin egingo den bertso-saioan izango da. Aitor Etxebarriazarraga Gabiola, Amets Arzallus Antia, Haritz Mujika Lasa, Nerea Elustondo Plazaola eta Oihana Iguaran Barandiaranekin batera igoko da ohol-tza gainera.

Donibane-Garaziko saioari buruzko xehetasunak bertsozale.eus web orrialdean topatuko dituzue.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Artzi
Parranda jatetxea

bazkariak EGUNERO
afariak: OSTIRAL/LARUNBATA

☎ 943 362725
☎ 688 690 361

Booktegi-ren urtemuga jaialdia hurbiltzen ari da

Sutegin ospatuko dute euskal literatura denon eskura sarean jartzen daraman egitasmoaren bosgarren urtemuga jaialdia, izen bereko elkartearekin iaz Usurbilen osatu zutelako. Sorkuntza diziplina ezberdinak uztartuko dituzten 3 emanaldi eta 3 solasaldi tar-tekaturako dituzte urriaren 22an.

Euskal literaturak batzen dituen sortzaile eta irakurleen artean, euskaraz idatzi eta irakurtzeko zaletasuna susta- tzen dabilen Booktegi egitas- moak bost urte bete ditu eta bosgarren urtemuga jaialdia Usurbilen ospatzea erabaki dute urriaren 22an. “Aukera bakarra izan da Usurbilen ospatzea”, egitasmo honen bul- tzatzaile Aritz Brantonen esanetan, “elkartea usurbildarra baita”.

Urriaren 22an Sutegin iraga- rri duten egun osoko eskain- tzak Booktegi egitasmoaren helburu nagusia den euskal irakurzaletasuna eta idazteko zaletasuna sustatzearren ispi- lua izatea nahi du, Brantonek Usurbilgo Udaleko kultura zi- negotzi Luken Arkarazorekin



5. urteurrenako egitaraua aurkeztu zuten aurreko astean.

LUKEN ARKARAZO

“Ospakizunetik haratago, euskal kulturgintzaren transmisio eta dibulgazio lan bat bilatzen du”

batera ate joka den bosgarren urtemuga jaialdiari buruz emandako azalpenetan.

Sarrerak eskuragarri

Segidan duzue jaialdiaren egi- taraua eta kontuan hartzeko zenbait ohar. Batetik, hilaren 22an, egunean zehar antolatu diren hiru emanaldietarako sa- rrerak aurrez eskuratu behar-

ko dira. Doan jaso ditzakezue jada, usurbilkultura.eus ata- rian. Hiru emanaldi horietako bat Anarirena izango da. 2000. urtean kaleratu zuen “Habiak” diskoko abestiekin kontzertu berezia eskainiko du. 11 abes- ti guztira. Kanta bakoitzarekin sortutako artelanen erakusketa ere ikusgai izango duzue egun horretan, urriaren 22an hasi eta hilaren 30era arte Sutegiko aretoan.

Partehartzailea izango da Booktegi egitasmoaren bosga- rren urtemuga jaialdia. Has- teko, “poesia-itzulera” ema- naldia antolatu dute NOAUA!

K.E.-k eta Sutegi udal liburu- tegiak. “Euskal poema bat aukeratu eta beste batek auke- ratutakoa irakurriaz osatuko dugun katean parte hartzeko gonbidapena da honakoa”. Nahi duenak urriaren 14a bai- no lehen poema bat hautatu eta izena eman dezala Sutegi udal liburutegian edo NOAUA! K.E.-ren egoitzan.

Lankidetzan

Bistan denez, herritarrak eta herri eragileak inplikatuak daude Booktegi-ren jaialdiaren antolakuntzan. NOAUA! K.E. eta Sutegi udal liburutegiare- kin batera, Udarregi Ikasto- lako ikasleak. Eta baita noski, Usurbilgo Udala ere. Baliabi- deak eta dirulaguntza eskaini dizkio ekimen honi. Interesga- rritzat jo du Luken Arkarazo zinegotziak. Ospakizun egun bat izatetik haratago, “euskal kulturgintzaren transmisio eta dibulgazio lan bat bilatzen du. Azkeneko urte honetan Usurbilen garatzen ari den kul- turguneak landu nahi dituen ildoak jorratzen ditu; batez ere, eragile desberdinen arteko elkarlana eta inplikazioa”.

Ekitaldi ugari iragarri dituzte urriaren 22rako

Urriak 22-30

■ “Habiak” erakusketa ikus- gai Sutegi erakustaretoan.

Urriak 22, larunbata Sutegin:

■ 10:00 Poesia-itzulera: NOAUA! K.E. eta Usurbilgo Liburutegia. “Euskarazko literatura sustatzeko jaial- di honetan, euskal poema bat aukeratu eta beste ba- tek aukeratutakoa irakurriaz osatuko dugun katean parte hartzeko gonbidapena da ho- nakoa”.

■ Izen-ematea: Sutegi udal liburutegian edo NOAUA! K.E.-ren bulegoan. Poema urriaren 14a baino lehen he-

larazi. Helbideak: biblioteca@ usurbil.eus / elkarte@noaua. eus

■ 11:30 Solasaldia: Maialen Alozi, Oihana Arana Cardenal, Ibon Larrazabal, Amaia Arakis- tain.

■ 16:00 “Habiak” emanaldia: Anari eta gonbidatuak. “Ana- rik bere disko klasikoa joko du hainbat gonbidatu berezik la- gunduta. 2000. urtetik hona ez du disko osoa jo, beraz aukera paregabea da azkoitiarren mu- sikaz gozatzeko”.

■ Sarrerak (doan): usurbilkul- tura.eus

■ 17:00 Solasaldia: Mikel Soto, Maite Darceles, Danele Sarriu-

garte, Bakartxo Iguaran.

■ 18:00 Emanaldia: “Azken aurreko manifestua”. Iraia Elias, Hatxe. “Iraia Eliasek eta Hatxek Harkaitz Cano- ren maisulana interpretatuko dute, hitzak, musika eta antzerkia uztartuz. Testuak ‘sistemak ez dit unzten’ dio, baina antzezleak eta musika- riak ate asko irekitzen diz- kigute”.

■ Sarrerak (doan): usurbilkul- tura.eus

■ 19:00 Solasaldia: Axel Luza- rraga, Irati Majuelo, Aitziber Etxeberria Garro, Ana Galarraga.

■ 20:00 Emanaldia: “Meza Na- gusia”. Uxue Alberdi, Amorante.

“Amorantek eta Uxue Alber- dik meza bat idatzi dugu. Horien parrokiako bekatuak exorzizatuko dituzte hitzez eta musikaz”.

■ Sarrerak (doan): usurbil- kultura.eus

Oharrak:

■ Itxaro Borda izango da jaialdiko anfitritioia. Musika- ria, berriz, Xabi Strubell.

Informazio gehiago:

booktegi.eus

Antolatzaileak:

Booktegi Kultur Elkarte, Usurbilgo Udala.

Ramon Lertxundi: “14 urterekin hasi nintzen parrillan lanean, osabari laguntzen”

San Sebastián Gastronómikak urtero antolatzen ditu sukaldaritza jardunaldiak, eta aurten Saizar saritu egin dute parrillen kategorian. XIII. edizioan, Ramon Lertxundik haragiarekin eginitako parrilla lanak lehen saria jaso du. Lehen aldia du Saizarreko jardunaldi hauetan saria jasotzen.

Urte luzez egindako lanaren emaitzaren ondorioa dela uste dute garaipen hau Saizar sagardotegikoek. Hala ere, ondotox dakite lanean jarraitu behar dutela bezeroak besoak zabalik hartzeko. Izan ere, Ramon Lertxundik ia bizitza osoa darama Saizarreko parrillan lanean eta oso ondo ezagutzen du sagardotegiko egunerokotasuna. “14 urterekin, osabarekin ibiltzen nintzen laguntzaile lanetan, baina jubilatut zenean, ni hasi nintzen parrillan, nahiz eta aitak beti laguntzen zidan. Ordutik, egunero parrillan ibiltzen naiz, horregatik beti esaten dut, nire ustez, ni bezain beste txuleta inork ez dituela erre Euskal Herri osoan”, adierazi du Saizarreko parrilleroak.



Ramon Lertxundik lehen saria irabazi zuen Gastronomika jardunaldietan. Argazkian, senideez inguratuta.

RAMON LERTXUNDI

“Bet esaten dut ni bezain beste txuleta inork ez dituela erre Euskal Herri osoan”

Horrelako lehiaketa bat irabazteko esperientzia giltzarri da, baina Ramonek baditu sekretu gehiago parrilla lan on

bat egiteko: “Haragia ona egiteko nik beti haragia kamaran edukitzen dut bere tenperatura egokian. 40 zinta inguru eta denak heldutasun denbora ezberdinekoak. Gero, goizean goiz kamaratik ateratzen ditut giro tenperaturara egokitzeko eta mozteko. Erretzeko momentuari dagokionez, nik urteekin ikasi dut eta dena begi bistarekin egiten dut. Haragia

nola dagoen ikusteko gai naiz soilik bere koloreari begiratuz eta badakit zenbat denbora behar izaten duen haragiak bere puntuan egoteko”. Datorren urtean ere, asmoa du berriz parte hartzeko. Orain arte parrilla kategorian hartu du parte beti, baina bestelako aukeraren bat suertatuz gero, agian, beste kategoriaren batean ere parte hartuko luke.

“Bet egon izan naiz finalisten artean”

Ramon Lertxundi Saizarren izenean parte hartu zuen Gastronomika jardunaldietako lehiaketan, baina Koldo Arrieta izan zuen alboan, laguntzaile lanetan. “Discarlux haragi etxeko Gipuzkoako komertziala da Koldo Arrieta, eta harekin batera aritu nintzen. Guztiontzat berdina izan zen, parrillero bat eta alboan beste pertsona bat laguntzaile lanetan. Guztira 8 lehiakide ginen, bakoitza toki ezberdin

batekoa”, esan digu Ramon Lertxundik. Saizar sagardotegiko parrilleroak ez zuen parte hartzen lehen aldia, baina bai lehena irabazten: “Bet egon izan naiz finalisten artean, baina hau nuen irabazten lehen aldia. Aurtengo txapelketa amaitu ostean, egindako lanarekin oso gustura geratu naiz, baina 50 epaileren adostasuna lortzea zaila da. Oso emaitza ederra lortu dugulakoan nago”.



Koldo Arrieta (ezkerretara) aritu zen laguntzaile lanetan.

Jende ugari ibili da Aginagako jaietan

Haur eta gazteek ostira-lean izan zuten jolase-rako zein bapo jateko abagunea Aginagako jaietan. Puzgarrietan arratsalde osoa jauzika ibili, txokolate beroa bizkotxoekin hartu, patata tortila eder bat egin eta bazkaldu zein afaltzeko aukera bikaina izan zuten Aginagara hurbildutako dozenaka lagunek.

Jaiak larunbat gaueko parrandarekin amaitu ziren Gozategi, Fan & Go eta DJ Bullekin nahikoa dantza egin eta abestu ostean. Arratsaldean ere, Txan magoak gazte eta helduak txundituta utzi zituen eta Andoni Ollokiegik aski maitea dela erakutsi zuen Aginagako Eliza Zaharrean. Amaiera jendetsua eta jai giro bizikoa izan dute aurtengo festek.



Amaiera jendetsua eta jai giro bizia izan dute aurtengo festetan.



Eskaintza zabala izan da aurtengoa. Jai Batzordeak haur, gazte zein helduentzako ekitaldi ugari antolatu ditu.

Aginagaren etorkizuna “marraztera doaz”

Zer izango da etorkizuna? Agiñak egun opa-roak bizi izan ditu eta festa eta egun politak ditugu aurretik, baina horren atzetik zer? Aurrera begiratzeko unea ez ote da heldu?. Ba antza bai, Aginagako Jai Batzordeak, San Praixkuen hasiera ekitaldian iragarri zuenez. Herriaren etorkizuna marraztuko duen “prozesu parte hartzaile bat abiatu nahi da Agiñan”, iragarri zuten.

Denboran luzatuko den egitasmoa dela zehaztu zuten. Urte hasieratik biltzen hasiak direla tokiko zenbait herri eragileetako ordezkariak talde bat; San Praixku Guraso Elkartekoak, Antxomolantxa elkartekoak eta Eliza Zaharra Elkarguneko kideak. “Taldean eta kolektiboki dugun indarra benetan baliatzeko momentua heldu dela uste dugu”, adierazi zuten.



“Herria hobekien herritarrok ezagutzen dugunez, zuen iritzia ezagutu nahi dugu”, zioen jai batzordeak jaien hasieran.

PARTE HARTZE PROZESUA

“Foru Aldunditik jaso duten diru-laguntza batekin bideratuko dute parte hartze prozesua”

Herri inkesta

Gipuzkoako Foru Aldunditik jaso duten diru-laguntzarekin, eman asmo duten lehen urratsa, etxekoek Aginagaz duten

ikuspegia jasotzeko herri inkesta bat osatzea izango da. Eta noski, inkesta hau osatzeko aginagarren beharra dutela adierazi zuten. “Herria hobekien herritarrok ezagutzen dugunez, zuen iritzia ezagutu nahi dugu”. Zehazki jakin nahi duguna da, Agiña nola bizi dugun, zein hutsune dituen eta zer sortzeko beharra dugun identifikatzeko asmoa baitugu. Esaguzue nola

bizi nahi duzuen eskola, plaza, ibaia, erribera eta mendia. Zein zerbitzu hobetzeko beharra dugun, edota zeinen beharra genukeen”, Jai Batzordetik adierazi zutenez.

Modu honetan, “denboran iraungo duen proiektu herritar bat” gorpuzten joan nahi dute, “talde sendo eta iraunkor bat osatuz”.

Eliza Zahar berritua

Honakoa ez litzateke, Aginagan abian jartzen duten halako lehen prozesua izango. Eliza Zahar eraberritua dugu horren adibide argiena. Auzolanean berritu dute urteotan. “Eliza Zaharra berritzea ez da lan makala izan. Prozesua bera aberatsa izan da eta zer hobetarik baduen arren, lanik zailenak eginak ditugula esan dezakegu. Hemen ageri da gure bihotza, eta parte hartu duzuen guztiei, eskerrak besterik ezin dizkizuegu eman”.



Aginagako jaien jarraipena egin dugu noaua.eus web orrialdean. Bertan dituzue argazki hauek eta beste hainbat gehiago.

BOOKTEGI JAIALDIA

urriak 22

POESIA-ITZULERA 10:00etan
GONBIDAPENA

Euskarazko literatura sustatzeko jaialdi honetan, euskal poema bat aukeratu eta beste batek aukeratutakoa irakurriaz osatuko dugun katean parte hartzeko gonbidapena da honakoa.

Eman izena Sutegi Liburutegian edo Noaua!ko bulegoan eta bidali zure poema ondorengo helbideetara (izena emateko azken eguna urriak 14):



Usurbilgo Udala

biblioteka@usurbil.eus

elkartea@noaua.eus

noaUA



Urriak 23, igandea

918 GAU

Filmaren
emanaldia

Ordua: 18:30.

Non: Sutegiko auditorioan
Nori zuzendua: helduei

sarrerak: aldeztu aurretik salgai 6€tan
usurbilkultura.eus plataforman.
Bazkideek 4 €tan eskuratu ahal izango dute
sarrera bat NOAUA!ko egoitzan.

noaUA



Usurbilgo Udala

Zumarte Musika Eskolak hainbat ikastaro iragarri ditu

Zumarte Musika Eskola-
ren eskaintza berri ho-
nek bi ezaugarri nagusi
ditu: zerotik hasiko dira eta adi-
na ez da muga. Beraz, gitarra,
ukelelea, dultzaina, armonika
edota alboka ikasteko gogoz
bazaude, orain duzu aukera.
Urriaren 24an abiatuko dira
ikastaroak baina izen-ematea
lehenago itxiko da.

Ukelelea

- Irakaslea: Nuria Culla.
- Astean ordu bat (taldean).
- Asteazkenetan, 18:30etan.
- Prezioa: 32 euro/hilean.

Musika 0-3 urte

- Irakaslea: Aritz Larrea.
- Hamabostean behin ordu bat.
- Ostiraletan, 17:00etan.
- Prezioa: 16 euro/hilean.

Dj eta musika elektronikoa (+ 16 urte)

- Irakaslea: Telmo Trenor.
- Egunak: Lehen ikastaroa, aza-



Ikastaro hauetan izena emateko epea urriaren 12an amaituko da. Ikasturtea urriaren 24an hasiko da.

EZAUGARRIAK

"Ikastaro hauetan izena emateko ez da aurre ezagutzarik behar. Zerotik has zaitezke hortaz"

roaren 26a (larunbata). Bigarren ikastaroa, martxoaren 25ean larunbata (taldean).
■ Prezioa: 32 euro, egun bako-

tzeko.

■ Oharra: Ikastaro trinkoa da. Egun bakoitzeko saioa 4 ordukoa izango da. Egun bat edo bestea hautatu daiteke (biak ere aukeran).

Gitarra (55 urtetik gorakoentzat)

- Irakaslea: Ixak Arruti.
- Astean ordu bat (taldean).
- Asteazkenetan, 10:00etan.
- Prezioa: 32 euro/hilean.

Armonika

- Irakaslea: Asier Nieto.
- Astean ordu erdi bat (bakarka).
- Eguna: irakaslearekin adostu.
- Prezioa: 45 euro/hilean.

Alboka

- Irakaslea: Teresa Jareño.
- Astean ordu erdi bat (bakarka).
- Eguna: irakaslearekin adostu.
- Prezioa: 45 euro/hilean.

Dultzaina

- Irakaslea: Bittor Carrera.
- Astean ordu erdi bat (bakarka).
- Eguna: irakaslearekin adostu.
- Prezioa: 45 euro/hilean.

Izen-ematea, online

■ Izen-ematea online egin behar da, urriaren 12ra bitarte, zumarte.eus web orrian dagoen formulario digitala betez.

Ikastaroen hasiera

■ Ikastaroak urriaren 24an hasiko dira.

Aisialdiko begirale titulua eskuratzen ikastaroaren aurkezpena

Begirale gisa jarduteko beharrezkoa den titulua eskuratzen ikastaroa iragarri dute. "Ikastaroa Usurbilgo aisialdiko egitasmoari egokitu zaio, herri hezitzaileen oinarrietatik abiatuta, euskaraz, herri-
tik eta herriarentzat. Horretarako, Udala eta NOAUA! K.E.-rekin elkarlanean dago Ikastolen Elkartea. Animatu eta izena eman!". Ikastaroari

buruzko zehaztasunen berri emateko aurkezpen ekitaldia antolatu dute urriaren 21ean, 19:30ean Potxoenean.

Gaztetxoentzako jostintza tailerra

Hitz Aho Udarregi Ikastolako guraso elkartearen eskutik, 8 urtetik gorakoei zuzendua. 8 saioko tailerra bideratuko du Ione Iruretagoiena moda diseinatzaileak ostiral arratsaldetan, urriaren 28an hasita.
■ Saio bakoitzak ordu eta er-

diko iraupena izango du, ordutegia zehazteke dute.

- Tailerraren prezioa, 20 euro, materiala barne.
- 10 lagunekoko taldea osatu behar da ikastaroa aurrera ateratzeko. Izena emandako hurrenkeraren arabera onartuko dira ikasleak.
- Izen-ematea emailaz: hitzaho@udarregi.eus

Gaztelekua martxan

Egunotan zabalduko dute:
■ Astelehena: 16:30-18:00

(DBH 3-4/Batzillerra) / 18:00-19:30 (adin guztiak).
■ Osteguna: 16:30-18:00 (DBH2) / 18:00-19:30 (adin guztiak).
■ Larunbata: 16:00-17:30 (DBH1) / 17:30-19:00 (adin guztiak).

Informazio gehiago:

Gaztelekuan aipatu ordutegian gaztelekua@usurbil.eus
943 371 050
688 71 38 38.

Kima

MASAJE LEKUA

· KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

ERAMATEKO!!!

· EGUNEKO MENUA
· KARTA

ARTZABAL (ESKANEATU QR KODEA IKUSTEKO)

BASERRIA · JATETXEA

www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

Udalbiltzaren 'Geuretik Sortuak' egitasmoko lanak ikusgai

Euskarazko sorkuntza sustatzeko Udalbiltzaren "Geuretik Sortuak" egitasmoaren baitan 2021ean zehar euskal sortzaile hainbatetik landutako proiektuetako bi ezagutzeko aukera izango dugu asteotan.

Urriak 21, ostirala

■ 19:30 "Bost teilatu" film proiektzioa Zubietako errebotetako plazan. Leire Egaña zuzendaria eta Eñaut Tolosa gidotaria film proiektzioan bertan izango dira.

■ Sinopsia: "Bost teilaturen azpian jazotako bost istorio labor. Nork bere etxean Krak egin duten Ane eta Mirenen do-lua; Ekaitz gazteak eta Inaxio edadetuak baserrian bizi duten katarsiak emandako Arnasa; Michellek jaioterrira itzultzean deskubrituko dituen Hitzak eta bere nortasunaren inguruko galderak; paketea dagokion tei-latupera eramateko Erlojupekoa lehiatzen duen mezularia eta, azkenik, Muga inguruan bere buruaren babesteko ihesi doan Kamaru gazte afrikarra".

Film laborrak:

■ Amancay Gaztañagak eta Erika Olaizolak zuzendutako "Krak". Ekoizlea: Kamikaz kolektiboa.



'Bost teilatu' filmak 80 minutuko iraupena du, eta Euskal Herriko bost udalerrri ezberdinetan garatu eta errodututako laborrak biltzen ditu.

'BOST TEILATU' FILMA

"Bost teilaturen azpian jazotako bost istorio labor biltzen ditu filmak. Urriaren 21ean Zubietako errebotetako plazan eskainiko dute, 19:30ean"

■ Josu Martinezek zuzendutako "Hitzak". Ekoizlea: Gastibeltza.

■ Leire Egaña zuzendutako "Erlojupekoa". Ekoizlea: Bira Produktzioak.

■ Eñaut Castagnetek zuzendutako "Muga". Ekoizlea: Gastibeltza eta Mirokutana.

■ Raul Barrerak zuzendutako "Arnara". Ekoizlea: Kliska

Filmak.

Antolatzailea: Zubietako Herri Batzarra.

Urriak 30, igandea

■ 18:30 "Harri minak" antzezlanaren Suteagiko auditorioan.

■ Konpainiak: Berritza eta Bonbon Beltz.


■ Egileak: Josune Gorostegui eta Dominika Recalt (Titika).

■ Zuzendaria: Amancay Gaztañaga.

■ Antzezleak: Josune Gorostegui eta Dominika Recalt (Titika).

■ Sarrerak: doan, usurbilkultura.eus plataforman.

■ Antolatzaileak: Udalbiltza Partzuergoa eta Usurbilgo Udalak.



Udazkeneko agenda udal liburutegian

Hiru ekitaldi antolatu ditu Suteagi udal liburutegiak urriaren 24ko Liburutegien Egunaren bueltan.

Urriak 20, osteguna

■ 18:00 Lur Korta ipuin kontalaria (6 urtetik gora). Goiko irudikoa da Lur.

Urriak 25, asteartea

■ 19:00 XX. Gaztelarazko so-lasaldia Ana Merino herriki-deak gidatua. Jon Bilbaoren "Los extraños" liburua aztertuko dute. 35 lagunentzako lekua. Izen-ematea: usurbilkultura.eus

Urriak 27, osteguna

■ 18:00 Pello Añorga ipuin kontalaria (HH4koentzat).

■ Antolatzailea: Udalak.

Kzgunera datozen ikastaroak

Urriaren arratsaldean, 16:00-20:00 artean irekiko duten KzGunean ondoko ikastaroak iragarri dituzte:

■ Urriak 27-28, 16:00-18:00: "Instagram. Partekatutako zure argazki eta bideo onenak".

■ Azaroak 2-4, 9:00-11:00: "PC, teklatua eta sagua hasieratik nola erabili ikas ezazu".

■ Azaroak 7-11, 9:00-11:00: "Mekanografia. Ikasi hutsetik".

■ Azaroak 21-24, 9:00-11:00: "LibreOffice Writer. Zure testu dokumentuak sortu".

■ Azaroak 28-30, 9:00-11:00: "Canva. Ikasi diseinatzen".

Informazio gehiagorako:

943 023 684

tutor.usurbil@kzgunea.net

13. Baxurde Krossa ate joka

Urriaren 22an arratsaldeko 16:00etan itxiko du Baxurde Txiki Usurbilgo Triatloi Taldeak bi urteko etenaldiaren ostean bueltan datorren 13. Baxurde Krossean izena emateko epea, kronoak.com atarian. Biharamunean hilaren 23an ospatuko da helduen nahiz gaztetxoek krossa:

Urriak 23, igandea

■ 10:30 10,9 kilometroko 13.

Baxurde Krossa. Usurbilgo frontoian hasi eta amaituko da. Herriko Kaxkoa eta landa eremuko bideak zeharkatuko ditu.

■ 12:00 Umeen krosa: benjaminak (2013-14an jaiotakoak) eta alebinak (2011-12an jaiotakoak). 600 metrokoa.

■ 12:10 Umeen krosa: infantilak (2009-10an jaiotakoak) eta kadeteak (2007-08an jaiotakoak). 1.000 metrokoa.

Izen-ematea:

Urriaren 22ko arratsaldeko 16:00ak arte kronoak.com atarian. 12 euro helduen lasterketa, doan umen krosa (2007-2014 urte artean jaiotakoentzat).

Informazio gehiago:

kronoak.com

Antolatzailea: Baxurde Txiki Usurbilgo Triatloi Taldea.

Buruntzaldea tipi-tapa ezagutzeko eguna

Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalek Buruntzaldeko Ibilbideen 14. Eguna antolatu dute iganderako, urriak 16. "Lehiatzeko ez den eta edozein publiko motarentzat egokia den jarduera fisikoa egiteko eta Buruntzaldea eskualdeko eta bere landa-ingurune naturala ezagutzeko aukera dugu", ekimen honi esker. "Bidezidor eta bideak ditugu (bost ibilbide aukeran), landako paisaiatik barrena paseoez gozatzeko, belardiak eta basoak zeharkatuz eta baserri, baseliza, karobi eta, natura nahiz kultura alde-tik, interesgarriak diren beste leku batzuetara hurbilduz".

Buruntzaldeko Ibilbideen

14. eguna

- Eguna: urriak 16, igandea.
- Ordua: 8:00-14:00.
- Kontrolak, anoa eta argibideak eskainiko diren postuak ezarriko dituzte herri guztietan: -Andoainen eta Urnietan: udal-letxe azpian.



"Buruntzaldea eta bere landa-ingurune naturala ezagutzeko aukera dugu".

ESKUALDEAN BARRENA

"Igande honetan ospatuko da Buruntzaldeko 14. Eguna"

- Lasarte-Orian: San Pedro Eli-zaren ondoko plazan.
- Usurbilen: Santueneko Zorro-tzeko zubi parean eta Aginagako Mapil baserri inguruan.
- Bideetako seinaleztapena, udal-erri bakoitzaren kolorean: Andoain urdina, Lasarte-Oria

urre zaharra, Urnieta berdea eta Usurbil laranja. Udal-erri guztietan bideei buruzko infor-mazio panelak.

Ibilbideak:

- Andoain - Lasarte-Oria. Buruntza mendia zeharkatuz edo gailurra eginda. Koloreak: urdina eta urre zaharra; 7,9 km. Soilik oinez egin daiteke, eta beharrezkoa da mendiko oinetakoak erabiltzea.
- Andoain - Urnieta. Kolo-

reak, urdina eta berdea; 4,8 km. Oinez edo bizikletaz egin daiteke, eta beharrezkoa da kirola egiteko oinetakoak era-biltzea.

■ Andoain - Usurbil. An-datatzatik barrena. Koloreak, urdina eta laranja; 14,9 km. Soilik oinez egin daiteke, eta beharrezkoa da mendiko oine-takoak erabiltzea.

■ Lasarte-Oria - Urnieta. Kolo-reak, urre zaharra eta berdea; 3,9 km. Oinez edo bizikletaz egin daiteke, eta beharrezkoa da kirola egiteko oinetakoak erabiltzea.

■ Lasarte-Oria - Usurbil - Agi-naga. Koloreak, urre zaharra eta laranja; 9 km (Santuene-tik barrena Aginagako Mapil ingururaino). Oinez edo bizi-kletaz egin daiteke, eta beha-rrezkoa da kirola egiteko oine-takoak erabiltzea.

■ Itzuli Handia: Buruntzaldea-ri 27 kilometroko itzulia, goi-zeko 8:00etan Lasarte-Oriatik abiatuta, Ostadar S.K.T.-koek antolatuta.

Ibilbideen 14. Egunerako kontuan hartzeko moduko zerbitzuak

Lagungarria:

Navi Ruta aplikazioa, telefo-no mugikorrarentzat egokia, ibilbideren bat egiterakoan informazioa modu jarraituan jasotzeko; kokapena, jarrai-tu beharreko norabidea, in-teres-guneak... Aplikazioa deskargatzeko eta ibilbide bakoitza aktibatze-ko udal-erri bakoitzean jarrian dau-den paneletan jarritako QR kodeak eskaneatu beharko dira. Kode horiek kontrol gu-neetan ere eskuragarri egon-go dira.

Oparia:

Partaide bakoitzak txartel bat jasoko du abiatzen den irtee-ra herrian. Bi ibilbide eginez gero, eskuoihal bat jasoko du oroigarri moduan. Andoain-La-sarte-Oria eta Andoain-Usurbil ibilbideak osatzen dituztenek oihala jasoko dute baita.

Itzulerrako autobus zerbitzua:

12:00etan irtengo da Agina-gako Ezpaldiko gasolindegitik eta 14:00etan azkena toki ber-dinetik. Ibilbideko geltokiak:

Aginaga (Ezpaldiko gasolin-degia), Usurbilgo San Ignazio biribilgunea, Lasarte-Oriako Dorretzeko biribilgunea, An-doaingo Goikoplaza atzealdea eta Urnietako Kioskoa. Gelto-kietan jarriko dute autobus or-dutegia, bestela hemen duzue: -Aginaga, Ezpaldiko gasolinde-gia: 12:00, 13:00, 14:00. -Usurbil, San Inazioko biribil-gunea: 12:07, 13:07, 14:07. -Lasarte-Oria, Dorretzeko biri-bilgunea: 12:15, 13:15, 14:15. -Andoain, Goikoplaza atzeal-dea: 12:30, 13:30, 14:30.

-Urnietan, Kiosko geltokia: 12:40, 13:40, 14:40.

Oharra: autobus zerbitzua baliatzeko ibilbidearen abia-puntuan jasotako txartela zi-gilatua aurkeztu beharko da. Antolatzaileak: Buruntzal-de-ko udaletako kirol zerbitzuak (Andoain, Lasarte-Oria, Ur-nieta, Usurbil).

Laguntzaileak: Andatza Men-di Elkartea, Euskalduna Men-digoizale Elkartea (Andoain), Ostadar S.K.T. mendizaleen saila (Lasarte-Oria), Super Amara eta Eusko Jaurlaritzak.

2023ko zerga, tasa eta prezio publikoak %1,5 igoko ditu Udalak

Zerbitzu publikoen kalitatea eta Udalaren oreka ekonomikoa bermatzeko erabaki dute %9-10aren bueltan dabilen KPI-aren oso azpitik geratu den igoera aplikatzea. Hasieraz onartu zen gehiengo osoz udal gobernu taldearen babesarekin. EAJ abstenitu zen, PSE-k aurka bozkatu zuen. Hasierako onarpena emanda, 30 egunez jendarrean jarriko dira laster.

Bi salbuespen

Batetik, Buruntzaldeko lau udalek (Usurbilgoarekin batera, Andoain, Lasarte-Oria eta Urnietakoak) urtero adosten dituzten eskualdeko kirol zerbitzuetako prezioak eta abonauak. Kasuotan, %2ko igoera aplikatuko dute.

Bestetik, ur-hornidurari lotutako hiru tasei eragingo die. Iaz, akats tekniko batengatik aurten %1,5eko igoera aplikatu beharrean %3ko igoera aplikatzea erabaki zuten. 2023ra begira beraz, %1,5eko igoera aplikatu beharrean, hiru tasa hauek izoztea erabaki du udal gobernu taldeak.

Desadostasunak

EAJ-tik, ur-hornidurari lotutako tasetan iaz izandako akatsa zuzentzeko beste modurik ez ote zen galdetu zuten. Udal kontuhartzaile Xabier Olanok erantzun zuenez, batetik, igoera horretan izandako eragin ekonomikoa txikia izan zen eta iaz, %1,5a igo beharrean %3ko gehikuntza onartu zenez, 2023ko tasa hauek izoztuta zuzenduta geratzen da akatsa. Ildo beretik mintzatu ziren udal gobernu taldetik ere. “Akatsaz inor ez da ohartu. Eragin txikia izan du. Udalbatzarrerara etorri, berri eman eta akatsa konpontzeko neurriak hartu ditugu”.

PSE-tik Patxi Suarez bozera-



EH Bilduren proposamenaren aurrean, EAJ abstenitu egin zen eta PSE-EE aurka azaldu zen. Batzuen eta besteen argudioak batu ditugu albiste honetan.

INBERTSIOETARAKO

“Milioi bat euroko mailegu kontratua onartzea erabaki zuen udalbatzak aho batez. Inbertsioak finantzateko erabiliko da diru hori”

maileak 2023ko udal ordenantzei begira udal gobernu taldeak proposaturiko %1,5eko igoeraren aurka bozkatu zuela iragarri zuen. Bere esanetan, “ez da erraza izango egungo egoera honetan kudeatzea, baina Udalak baliabide ekonomikoa ditu”, bere esanetan. Foru funtsa aurreikusitakoa baino handiagoa izan daitekeela ere iragarri zuen eta urte berrirako zerga, tasa eta prezio publikoak izoztearen alde agertu zen.

EAJ eta PSE-ren adierazpenei, diskurtso erraz eta demagogoa egitea egotzi zieten udal gobernu taldetik. Prezioen gorakada izugarriak eragindako egoera zaila dela aipatu zuten EHBildutik eta arduraz jokatzeko delat udalaren oreka ekonomikoa bermatzea. Bide batez, gogorarazi zuen, ordenantza fiskal hauei aurre egiteko hobarien eskaintza nabarmen zabaltzea erabaki zutela duela urtebete, onarturiko “igoerak erabat eta gehiago neutralizaturik”

uzteko aukera ahalbidetzen dutenak. Baina EHBildutik oposizioko taldeei gogorarazi zenez, “hobarien sistema hau ez zenuten babestu”.

EAJ-tik duela bi urte udal gobernu taldeak tasak izoztea proposatu zuela oroitarazi zuten, eta zergatik ez erabili oraingoan “herritar guztientzat diru gerakina”, EAJ-ren ustez, haien ikuspegitik egungo “egoera dezente okerragoa” denean. Orduko hartan, EHBildutik gogoratu zuten, duela bi urte “asko etxean ziren, lanik egin ezinik”.

Errazena ordenantza fiskalak izoztea eskatzea dela diote EHBildutik, baina “nori egiten diote mesede? Behar ez dutenei”. Hobarien sistema nabarmen zabaltzearekin batera, “dirulaguntza sistema handi bat” du Udalak EHBildutik gogorarazi zutenez. Eta 2023ra begira %1,5aren igoera horretatik kanpo geratu den salbuespen bakarra, kirol zerbitzuen prezioak eta abonauak izan direla nabarmendu zuten. %2ko igoera adostu zutela Buruntzaldean, baina eskualde mailara %1,5eko igoeraren proposamena eraman zutela Usurbilgo Udalak. Aldiz, igoera handiagoak proposatu zituztela aditzera eman zuten udal gobernu taldetik, eskualdeko gainerako Udalek; PSE agin-

tean duen Lasarteko Udalak %4,9koa, %2koa EAJ agintean duen Urnietako Udalak.

150 eskaera eta 115 onuradun

%1,5eko igoera orokorraren harira, Udaletik ohartarazi dutenez, “egoera zailetan inor atzean edo bazterrean utzi gabe, ahalegin berezia egingo da hobariak jasotzeko eskubideak eta aukerak zabaltu eta ezagutu arazteko”.

Iaz, aurten bezala, 2022rako %1,5eko igoera aplikatzea erabaki zuen Udalak ordenantza fiskalei. Aldaketa esanguratsu batekin; hobarien eskaintza nabarmen zabalduta. Urte hasieratik %50-%90 arteko hobariak eskura ditzakete herritarrek, “ur, hondakin, estolderia, hileta, baratzen erabilera eta kirol instalazio (abonuez gain, lehen aldiz ikastaroetan), Haur Eskola zerbitzuetan eta Uda-jolasen”. Urte hasieratik zabalik dago hobariok eskatzeko aukera. Udal gobernu taldeak irailaren 29ko osoko bilkuran emandako azken datuen arabera, abuztura arte 150 eskaera bideratu dituzte herritarrek. “Haietatik 115 usurbildar onuradunak” izan dira.

Inbertsioak finantzatzeko mailegu kontratua

Beste aztergai batzuk ere izan ziren irailaren 29ko bilkuran. Milioi bat euroko mailegu kontratua onartzea erabaki zuen udalbatzak aho batez. Horretarako, aurrez herrian bulegoren bat duten hiru finantza entitateei eskaintza eskatu zien Usurbilgo Udalak. Haietako bat aukeratu behar zuten. Kutxa-bank-en mailegu kontratua aho batez onartzea erabaki zuen udalbatzak, irailaren 29ko udalbatzarrean.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trastelekua, balkoia, terraza. 688710916.

Alokairuan

Kaxkxoan etxebizitza alokatzen da denboraldi motzetarako. Bi logela, egongela, sukalde-jangela balkoiarekin eta komuna. Altzariz hornitua eta sartzeko prest. Telefonoz WhatsApp-a: 657770131

Usurbilen logela bat alokatzen dugu neska edo emakume barentzako. 618032966

Usurbilen bizi den mutil gazte ukrainar batek gela bat alokatu beharra du. Urgentziazkoa da. 649 429 416

Alokairuan hartzeko etxe baten bila nabil Usurbilen. 622925562

Neska kaudimenduna, maskotak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratua eta erroldatzea beharrezkoa. 622396941 (Patricia).

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Aginagan, Elutx kalean 30 m² garaje itxi bat salgai. 629460966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209.

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Klase partikularrak emateko prest dauden zerranda osatzen ari da Udarregi Ikastola. Interesa dutenek 943 36 12 16 telefono zenbakira dei dezatela.

Zerbitzaria behar dugu aste-buruetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondon. 626 686 036

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Garbitzailea behar da Aginaga sagardotegian goizez lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jate-txean. 666 671 444

Lan eskaerak

Kurtsoan zehar arratsaldez haurrak zaintzeko prest eta esperientziarekin. 695 184 179 (Ane)

Kurtsoan zehar klase partikularrak emateko edota haurrak zaintzeko lan bila nabil. Magis-

teritzan graduatua eta esperientziaduna. 679219805 (Irati)

Ikasturtean zehar umeak zaintzeko edota Lehen Hezkuntzako ikasleei klase partikularrak emateko lan bila nabil. 688645491 (Nahia)

Ostalaritzan edo pintura lanetan zein igeltsiritzan lan bila nabil. Urteetako esperientzia lehen mailako ofizial bezala eta ostalaritza munduan ere bai. Negozio propioa ere izan dut ostalaritzan. 657 683 762

Umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil, orduka zein egun osoz. 624 509 470

Emakumeak orduka zaintzeko lan bila nabil goizetan, arratsaldetan zein gauetan. 609 647 728

Umeak zaintzeko eta ingelesa irakasteko prest dagoen neska gaztea. 644 716 739

Adinekoen eta haurren zaintza lana edota etxeko garbiketarako egiteko eskaintzen naiz. Esperientzia eta gomendio onak ditut 602568090.

Umeak zaintzeko prest dagoen gazte euskalduna. Esperientzia badauket. 688 73 43 44

BESTELAKOAK

Giltza batzuk aurkitu nituen irailaren 28an, Zumarte ondoko parkean. Udaltzaingoa daude.

Gutxi erabilitako lau gupil salgai (195/65R15 91H). 200 euro. 671 54 75 67.

600 litroko altzairu herdoilgaitzeko (acero inoxidable) kupela daukagu salgai. Sagardoarekin erabilitakoa: 620024663.

San Estebanen (Zabale inguruan) betaurreko graduatu batzuk aurkitu ditut. Galdu dituenak Udaltzainetan dauzka jasotzeko.

Futbol partidak**Kanpoan****Urriak 15, larunbata**

19:30 Preferente mutilak
Oiartzungo Karla Lekuonan:
Oiartzun KE "B"-Usurbil FT

Urriak 16, igandea

12:00 Kadeteak Donostiako
Matigoxotegin:
Kostkas KE E-Usurbil FT B
14:05 Jubenilak Donostiako
Berion: Santo Tomas Lizeoa
B-Usurbil FT B

Etxekoak**Urriak 15, larunbata**

9:00 Infantil neskak:
Usurbil FT A-Amara Berri KE
Usurbil FT B-Ostadar SKT
12:30 Jubenilak:
Usurbil FT A-Orioko FT B
15:30 Preferente neskak:
Usurbil FT-Aistondo Neskide
17:45 Erregionalak:
Usurbil FT B-Lengokoak KE

Urriak 16, igandea

10:00 Kadete neskak:
Usurbil FT-Aizkorri FT
12:00 Kadete preferenteak:
Usurbil FT-Aloña Mendi

Eskubaloit partidak**Urriak 15, larunbata**

17:00 Oiardo kiroldegian
-Usurbil KE kadete neskak
- Garaje Axiri Pulpo

18:45 Oiardo kiroldegian
-Usurbil KE senior mutilak
- Aloña Mendi KE

18:00 Trapagararen
- Trapagaran eskubaloia
- Usurbil KE kadete mutilak

Urriak 16, igandea

10:00 Trapagaran
- Trapagaran eskubaloia
- Usurbil KE jubenil mutilak

Hernani (ordua eta eguna zehazteke):
- Hernani one telecom ET
- Urbil Usurbil KE jubenil neskak

Usurbil KE:**Alebin mailakoentzat oharra**

2022/2023 denboraldia martxan da. Alebin mailako errendimendu taldean izena emateko epea urriaren 14an amaituko da. Esteka honetan duzue inskripzioa osatzeko formularioa: <https://forms.gle/HaXDmd6jNaTY6bhZ6>

Era honetan, 2011n jaiotako neska-mutilek eskubaloiaz gozatzeko aukera izango dute ikasturte osoan. "Entrenamenduak astean behin izango dira, ziuurenik igandeetan, eta kuota 50 eurokoa izango da", Usurbil KEtik aditzera eman dutenez. Zalantzak argitzeko: usurbilkirolelkarrea@gmail.com 678 068 508

Pilota partidak**Usurbilgo frontoian****Urriak 14 ostirala**

18:00 Aginagako frontoian
Errendimendua banaka,
Infantilak 2. maila:
-Pagazpe (Indakoetxea)
-Oiarpe

Eskuz binaka,
Kadeteak Gipuzkoa 2. maila:
-Pagazpe
-Oiarpe

Nagusiak, Binaka Ohorezko maila:
-Pagazpe
-Tolosa

Goardiako farmaziak

Osteguna 13 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Ostirala 14 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Larunbata 15 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 16 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Astlehena 17 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteartea 18 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Asteazkena 19 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Osteguna 20 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 21 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Larunbata 22 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 23 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian eta aplikazioan dituzue ikusgai.

Agenda urria

14 ostirala

- Garagardo Azoka.
- Turismo eredu berriari buruzko proiektuaren eta web orrialdearen aurkezpena. 18:00etan Mikel Laboa plazan.

15 larunbata

- Garagardo Azoka.

16 igandea

- Garagardo Azoka.
- Buruntzaldeko Ibilbideen Eguna. Ikus 15. orrialdea.

Garagardo festa Usurbilgo frontoian

Urriak 13, osteguna

- 18:30 Azokaren irekiera.

Urriak 14, ostirala

- 18:00 Azokaren irekiera.
- 19:00 Musikari-kirolari ekitaldia: esku-baloiz zein futbol taldeetako musikariak.
- 23:00 DJ Skywalker.

Urriak 15, larunbata

- 12:00 Azokaren irekiera.
- 18:00 Maddi eta Elene.
- 20:00 Zozketako zenbaki sarituen banaketa.
- 22:00 Dj RR.

Urriak 16, igandea

- 12:00 Azokaren irekiera.
- 16:00 Usurbilgo Garagardo Azokako 1. Mus Txapelketa:
 - Izen-ematea: 15:30-16:00.
 - Prezioa: 30 euro bikoteko (2 pitxar eta 2 garagardo berezi barne).
 - 1. saria: txapelak, irabazlearen altuera garagardo kaxetan, urdaiazpiko bat.



Zer jan eta zer edan, aukera zabala egongo da igandera bitarte.

- 2. saria: kopak, Patri jatetxean bi pertsonentzat asteburuko bazkaria edo afaria.
- 3. saria: 2 ukondo, Aialde Berriko sagardoa.
- 4. saria: 2 garagardo berezi.
- 20:00 Azokaren itxiera.

Oharrak:

- Otorduen ordutegia: bazkariak, 13:00-15:00. Afariak, 20:00-23:00 artean.
- Urriaren 13an afaria eskainiko dute, urriaren 14ean eta 15ean bazkaria eta afaria eta urriaren 16an bazkaria.
- Jatekoa azokan bertan jan edota eramateko eskatu ahal da.

Buruntzaldeko ibilbideen 14. eguna

Urriak 16, igandea

- Ordua: 8:00-14:00.
- Kontrolak, anoa eta argibideak eskainiko diren postuak:
 - Andoainen eta Urnietan: udaletxe azpian.

- Lasarte-Orian: San Pedro Elizaren ondoko plazan.
- Usurbilen: Santueneko Zorrotzeko zubi parean eta Aginagako Mapil baserri inguruan.
- Xehetasun gehiago 15. orrialdean.

Datozenak

Urriaren 22an, Booktegiren 5. urtemuga jaialdia

- 10:00 Poesia-itzulera: NOAUA! K.E. eta Usurbilgo udal liburutegia.
- 11:30 Solasaldia: Maialen Alozi, Oihana Arana Cardenal, Ibon Larrazabal, Amaia Arakistain.
- 16:00 "Habiak" emanaldia: Anari eta gonbidatuak.
- 17:00 Solasaldia: Mikel Soto, Maite Darceles, Danele Sarriugarte, Bakartxo Iguaran.
- 18:00 Emanaldia: "Azken aurreko manifestua". Iraia Elias, Hatxe.
- 19:00 Solasaldia: Axel Luzarraga, Irati Majuelo, Aitziber Etxeberria Garro, Ana Galarraga.
- 20:00 Emanaldia: "Meza Nagusia". Uxue Alberdi, Amorante.
- Oharrak:
 - Itxaro Borda izango da jaialdiko anfitrioia. Musikaria, berriz, Xabi Strubell.
 - “Habiak” erakusketa Sutegiko erakustaretoan, urriaren 22tik 30era.

Informazio gehiago:
booktegi.eus

Otar-Goxo
Elizagaia
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

ADA
-MASAJEAK-
633 36 22 33
erreka-txiki 1, USURBIL

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
☎ 943 370 008

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Ofizioen Gida



PLAKODUR
Eskaiola eta Pladurra

943 00 85 44 - 634 45 78 78



URDAINTZI

eraikuntzak

649 43 54 75 / 76

943 36 72 64

urdaintzi@euskalnet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK

· BERRITZE LANAK

Josue
Igeltseritza

Fax: 943 24 34 60
Atallu pol. etallu, 28
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra



Telefona
693 059 392

e-posta:
uraitz@uraitz.com

Geltoki Kalea 15 behea, Lasarte-Oria



· gremioen
koordinaketa
· berritze lanak
· sukaldeak
· komunak

943 530 337

607 119 313

errekatziki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

IRUARKAITZ
ERAIKUNTZAK, S.L.

· FATXADAK ETA TEILATUAK

· ERAIKUNTZAK · BARRUKO BERRIKUNTZAK

· URALITA KENTZEKO ENPRESA

BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA



GRUPO MONROY

BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK

943 53 72 38 - 628 45 78 39 - 628 91 72 15

reformas@reformasmonroy.com

NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL

Antonio
URRUZOLA

AROTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415

Asteasuain Industrialdea, 3

BARRENETXE

Salsamendi Arregi, Iñaki

AROTEGIA

943 362 664

Barren Etxe kalea ZUBIETA



ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoien.arotzgi.net jribargoien@arotzgi.net

943 36 14 48 - 676 45 31 76

ARGILAN

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859

943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL



antenas
Telemar

943 55 33 99

info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI

APARICIO

DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943

Puntapax, 3 - 3.B 20170 USURBIL

Enrique Alonso
ITURGINTZA

GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak

TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa

BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

Iñaki
Iturgintza

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA

ZORU BERO-EMALEA

ITURGINTZA · ENERGIA BERRITZAGARRIAK

info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825



TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465
zuriarraiturgintza@gmail.com

Rafa
iturgindegia

· ITURGIN LAN OROKORRAK · DUTXAKO HANPARAK
· KONFINDATZAKO GREHIOAK · KOKUNERO ALTZARIAK

Bordaberri kalea 1, 1 behea • 943 36 80 04

ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

· komertzial instalazioak
· beira bikoitza · segurtasun beirak
· dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA

maiz
hornigaiak

· TRESNERIA ETA ERREMINTAK

· EGUR ETA AROTZ-LANETARAKO HORNIDURA

suministrosmaiz.com (ONLINE DENDA ERE)

Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39

Beste mundu bat posible da.

650
USURBIL
bizi

Aurkezpen ekitaldia

650 Usurbil Bizi

Turismo eredu berriaren
proiektua eta webgunearen
aurkezpena.

Ostirala 14

18:00etan

Mikel Laboa plazan



Usurbilgo
Udala

Usurbil, bestelako herri bat, beste mundu bat
nahi duen bestelako bisitariarentzat!